

TOLOSALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko irailaren 3a. IX. urtea. 2.636. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Fermin Muguruza eta bere taldeak Bonberenea Sutanen emandako kontzertuaren une bat. BORJA EIZAGIRRE

Jendetza bildu da Bonberenea Sutan ekimenaren inguruan

Tolosako gaztetxeko emanaldietan 700 pertsona inguru elkartu dira; Gau Giroko azken saioa eta IV. Boleibol Txapelketa ere izan dira asteburuan, eta Amezketan Ikurrinaren Festa ospatu dute **02**

Ioana Alijostes eta Irati Larrañaga tolosarrek gertu dute Kontxako Bandera

Zumaiako ontziarekin ari dira, eta igandeko estropada irabazita ia eskuan dute garaipena; Jon Lizarralde eta Ugaitz Mendizabal ere bandera lortzeko lehian ariko dira, igandean **03**

Igandean jakingo dira Joxean Tolosa txapelketako irabazleen izenak

Joxean Tolosa Pilota Txapelketako finalak igandean jokatuko dira Amezketako pilotalekuan, 17:00etatik aurrera **03**

Tolosako Paper eskolan ostiralean hasiko dira bi ziklo berriak

Erdi mailako Kimikagintza eta goi mailako Kimikagintza Industrialak ikasketetan matrikula egiteko aukera zabalik da oraindik **04**



XVII. HITZA Udako Argazki Lehiaketa



1. Saria

Bermeoko **Lurdeia landetxean**, bi pertsonentzako asteburu osorako egonaldia.



2. Saria

Tolosako **Beti-Alai jatetxean**, bi pertsonentzako asteburuko otordua.



3. Saria

Txindokiko Itzala abentura parkerako bi sarrera.



Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!

Fermin Muguruza eta bere lagunek sutan jarri dute Bonberenea

Ikurrinaren Festa ospatu dute Amezketan; Tolosan kirolak eta musikak euren txokoa izan dute

Asier Imaz

Fermin Muguruza eta Kontrakantxa bandak *No More Tour 2013* itzuliari amaiera eman zion larunbatean, Tolosan, eta Bonberenea Sutan egitasmoaren barruan. Jende ugari elkartu zen kontzertu festa ikusteko asmoz, eta giro ederrean, Zuloak taldearekin jarri ziren dantzari. Ondoren, Anai Arrebak, Muguruza, Bad Sound System eta Ziribulio Sound System-ek girotu zuten jaia eguna argitu bitarte. Bonberenea Sutan-en azken edizioa izan daitekeenarekin batera, Tolosan, Gau Giro 2013 egitasmoaren azken emanaldia egin zen asteburuan. Ostiralean, Barrua Truk musika taldeak kontzertua eskaini zuen Oria kalean egokitutako eszenatokian.

Gau Giro udako ekitaldi kulturaleraz osaturiko agenda da, eta

Oinkari dantza taldeak zabaldu zuen uztailaren 13an. Ondoren, Tolosako Musika Banda, Udaberri dantza taldea, Manent eta Hector Manuel Salcedo musikariak igo dira oholtzara. Barrua Truk-en kontzertua izan da Gau Giro 2013ko azken ekitaldia.

Musikarekin batera, kirolak ere izan du tarte Tolosan. Ostalariek antolatutako Udako Azken Festaren barruan, IV. Boleibol Txapelketa jokatu da. Plaza Berrian hondartzara jarri ondoren, hiru egunetan zehar, 20 talde aritu dira lehian. Finala larunbatean jokatu zen, eta Photokafe talde nagusitu zen. Bigarren, Txanpa Latinoko kideak sailkatu ziren, eta hirugarren Agustinene-akoak. Antolatzaileak oso gustura gelditu dira egun hauetan bizitakoarekin, izan ere, «izugarritzko jende piloa ibili da partidak jarraitzen, eta kirolarien maila ere oso ona izan da».

Amezketan, bestalde, Ikurrinaren Festa ospatu zuten larunbatean. Egun guztiko egitarauan ikurrinaren dantza, txakolina eta pintxoak, eta zahagi afaria egin zituzten, besteak beste, udalaren laguntzarekin.



Tolosa ◉ Bonberenea Sutan musika jaialdian 700 lagun inguru elkartu ziren. Irudian Zuloak taldea. MIKEL IRAOLA



Tolosa ◉ Barrua Truk musika taldearen kontzertuarekin amaitu zen, ostiralean, Gau Giro 2013. I. URKIZU



Tolosa ◉ Jende ugari jarraitu du IV. Boleibol Txapelketa. I. TERRADILLOS



Amezketan ◉ Ikurrinaren Festa ospatu zuten larunbatean, egun guztiko jaiarekin. HITZA



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aurten, lehen aldiz, ez du lehiatu Getaria-Tolosak. Tolosarrak beste talde batzuetan ari dira arraunean. HITZA

Tosalaldeko arraunlariek lan ona egin dute Kontxako Banderako lehen estropadan

Ioana Alijostes, Irati Larrañaga, Ugaitz Mendizabal eta Jon Lizarralde ari dira bandera lortzeko lehian

Mikel Iraola

Iraileko lehen igandearrekin batera heldu da Kontxako Banderako Donostiako badiara. Azken urteotan, Tolosaldeak presentzia nabarmena izan du Getaria-Tolosaren partaidetza dela eta. Aurten, baina, ez da getariar eta tolosarren arteko talderik izan lehen. Bai, ordea, tolosaldeko uretan hazi eta hezitako arraunlariak, izan ere, eskualdeko lau kirolari, bi mutil eta bi neska, daude arraun munduko bandera preziatuena lortzeko borrokan.

Ioana Alijostes eta Irati Larrañaga tolosarrek dute gertuen sari potoloena. Pasa den urtera arte, getariarrekin lehiatu ondoren, Zumai aldera jo zuten taldea desagertu ondoren. Talde sendoa dute gorriek, eta horren erakusle dira Euskotren Liga eta Gipuzkoako Ligan lortutako lehen postuak. Bada, Kontxan nagusitasun hori mantendu, eta datorren igandeko estropada jokatzeko falta bada ere, ia erabakita utzi dute lehia. *Telmo Deun* ontziak lan borobila egin, eta 11 segundoko alde atera zion Hibaikari, 18 San Joani eta 25 Mecosi.

Parekatuagoa dago gizonetzkoen maila. Lehen sailkatua den Urdaibaik, hiru segundoko tartea besterik ez du bigarrena den Hondarribiarekiko. *Ama Guadalupekoa* ontziko partaide da Jon Liza-

rralde anoetarra. Bermeotarrak lehen txandako garaile izan ziren; berdeak, berriz, bigarrenekoak. Lan ezinhobea egin zuten biek, poparean batez ere, eta azkenera arte mantendu zen estropada irabazteko lehia. Orio hirugarren da sei segundora, eta faborito nagusia, Kaiku, eguneko sorpresa izan zen, lehen sailkatutik 13 segundora amaitu eta gero.

Bi urtez, Kontxatik kanpo geratu ondoren, San Pedrok lan ona egin zuen itzuleran. Ugaitz Mendizabal irurarraren gidaritzapean bostgarren egin zuen *Libiak*, ohorezko txandatik hiru segundora. Lehen luzean Urdaibairen parean izan zen, baina itzuleran bermeotarrekin tartea zabaldu zuten.

Datorren igandean, 11:00etatik aurrera, erabakiko da nortzuk izango diren irabazleak.

Igandean jokatuko dira Joxean Tolosa pilota txapelketako finalak

Erasun zizurkildarrak gazteen mailako finala jokatuko du; Artola alegiarrak, berriz, nagusien mailakoa

M. Iraola Amezketak

Datorren igandean, hilaren 8an jokatuko dira Joxean Tolosa pilota txapelketako finalak Amezketan, arratsaldeko bostetan.

Kadeteen mailako lehen kanporaketan, Arandiak erraz irabazi

zion Aizpururi, 18-7, azken honen urduritasuna baliatuta. Beste finalerdian, Bakaikoa 18-4 gailendu zitzaion Martijari.

Gazteen mailan, partida ederra eskaini zuten Erasun eta Espinallek. Zizurkildarrentzat izan zen garaipena, 18-12, nahiz eta 2-8 galitzen hasi. Beste kanporaketan, Elizalde 18-11 irabazi zion Etxebarriari. Nagusietan, berriz, Artola alegiarrak erakustaldia eman zuen Arratibelen aurka (18-4). Bigarren partidari, Santxok ezustea eman zuen GRAVN txapelketako irabazlea 5ean utzi ondoren.

Irudia ◊ Tolosa



TAKE, TXAPELDUN VIC-EN

TAKE saskibaloi taldeak pasa den asteburu honetan Sant Julià de Vilatorrada (Herrialde Katalanak) herrian jokatu den txapelketa irabazi du. Aurrendenboraldiko ohiko hitzordua dute tolosarrek Kataluniakoa, eta hori aprobetxatuz bost eguneko egonaldia egin dute Vic herrian. Kirol lorpenetik haratago, «talde giro apartan bizitako esperientzia bikaina» izan dela aitortu dute taldeko jokalariek. Irudian, egonaldian zehar ur-parke batera egin zuten irteera. TAKE

Aurrendenboraldiari ekin dio Lauburu Ibarrek

Bi porrot jaso ditu etxetik kanpo Xota eta San Joan taldeen aurka jokatutako lagunarteko norgehiagoketetan

M. Iraola Ibarra

Lauburu Ibarra esku hutsik itzuli da aurrendenboraldiko lagunarteko lehen bi partidetatik. Pasa den asteartean, lehen mailako taldea den Xota izan zuen aurkari. Irurtzungo taldea estu hartu zuten ibartarrek, baina partida txukuna

jokatu arren, ezin izan zuten nafarrekin. Aurretik izan baziren ere, eta markagailuan berdinketa ugari izan bazen ere, 4-3ko emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka.

Larunbatean, berriz, San Joan taldearen aurka 4-leko porrota jaso zuen talde moreak Iruñean.

Bihar, Laskorainen aurka ari zuten dira Usabalgo kiroldegian. Larunbatean, hiruko txapelketa jokatuko du Ibarra, eta hilaren 10ean, liga hasiera aurretik azken partida jokatuko du Eskolapioen aurka. 14an, hasiko du denboraldia Belabieta kiroldegian, Inter Moviestar taldearen aurka.

Bihar hasiko da Tolosako Atletismo eskola

Bihartik aurrera infantil eta alebinek ekingo diote lanari; benjamin eta aurrebenjaminen, aldiz, ostiralean

M. Iraola Tolosa

Bihartik aurrera ekingo dio ikasturteari Tolosako Atletismo eskolako Berazubi estadioan. Infantil -2000 eta 2001 urteetan jaiotakoak - eta alebin -2002 eta 2003 urteetakoak - mailako haurrak daude deituta biharko lehen hitzordura.

Infantilek astelehen, asteazken eta ostiralean burutuko dituzte euren entrenamenduak, 17:30etatik 18:45era bitartean. Alebinak, berriz, astelehen eta asteazkenean entrenatuko dute, 17:30etatik 18:30era.

Benjaminak -2004 eta 2005ean jaiotakoak - eta aurrebenjaminak -2006 eta 2007koak -, ostiralean, hilaren 6an, hasiko dira prestatzen. Ostiralean entrenatuko dute, 17:30etatik hasita, ordubetez.

Informazio gehiago nahi dutenek, 943 67 17 49 telefono zenbakira deitu dezakete.

◉ tolosaldean@hitza.info

Tolosaldea IKT astelehenean hasiko da igeri egiten ikasteko klaseekin

M. Iraola Tolosa

Tolosaldea IKT igeri elkarteak datorren astelehenean, hilak 9, hasiko du ikasturtea. Igeriketa eskolan hasi nahi duten eskualdeko haurrek, froga bat egin behar dute irailak 3,4 eta 5 ean 17:30etik 18:30era Usabal kiroldegiko igerilekuan. Beste urteetan igeri egin dutenak, astelehenean hasiko dira. Orduategiak, klubaren webgunean daude ikusgai.

→ **Laburrak**

Ostegunean zabalduko dute berriz, Topagunea

TOLOSA › Tolosako Gazte Topaguneak ostegun honetan atek zabalduko ditu berriz, udako oporraldia eta gero. Ostegunetan eta ostiralean 17:00etatik 20:00etara bitarte zabalik izango da, eta asteburuan, berriz, 16:30etik 20:30ak arte egon ahal izango dira bertan, 12 eta 17 urte bitarteko gazteek.

Koldobika Jauregiren ikastaroa San Telmon

ALKIZA › Gaur eta bihar tapizak eta alfombra ehuntzeko ikastaro eskainiko du Koldobika Jauregik, Donostiako San Telmo museoan, 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era bitarte. Jauregik Picassoren *Gernika* koadroaren neurri bereko alfombra erraldoia diseinatu zuen, bonbardaketaren 75. urteurrena eta Donostiako sutearen 200. urteurrenaren harira; Nepalen ehundu dute bost hila-betetan.

Udal lankidetzaren sozialetan diru laguntzen epea zabalik

TOLOSA › Udal Lankidetzaren Sozialeko diru laguntzen eskararak aurkezteko epea atzo zabaldu zuten, eta 30 egun naturalekoa izango da. Dena den, azken eguna larunbata, igandea edota jaieguna izango balitz, epea hurrengo lanegunera bitarte luzatuko dute.

Udaberriko ikastaroetako zerrendak ikusgai jada

TOLOSA › Udaberri dantza taldeak haur eta gaztetxoentzat antolatzen dituen ikastaroak irailaren 16an hasiko dira, eta izena eman dutenen zerrendak ikusgai daude jada, taldearen www.udaberri.com atarian. Taldeko arduradunek oraindik ere ikastaroetan izena emateko aukera badela azaldu dute.

Ibarratik Leabururako bidea itxita izango da gaur

IBARRA › Ibarratik Leaburura doan bidea itxita izango da gaur, 08:00etatik 20:00etara bitarte, konponketa batzuk medio.

Arroila jaitsiera asteburuan, Oargirekin

TOLOSA › Arroila jaitsiera antolatuko dute Oargikoez, Hechoko haranean. Ostiralean irten eta igandean itzuliko dira, eta 48 euro ordaindu beharko da. Izena emateko azken eguna gaur da, 688698642 telefonon edo info@oargi.org helbidean. 10 euro aurreratu beharko dira Euskadiko Kutzako 3035 0028 11 0281141038 kontuan.

Iturriza elkarteko Udazken jokoetako izen ematea

TOLOSA › Erretirodunen Iturriza elkarteko Udazken jokoak antolatuko dituzte, eta bazkideek irailaren 12ra bitarte izango dute izena emateko aukera. Asteleheneetik ostiralera egin ahal izango da izen-ematea, egoitzan, 10:00etatik 12:00etara bitarte.

Oraindik ere bada aukerarik, Paper eskolako bi zikloetan matrikulatzeko

Kimikagintzako bi modulo eskainiko dituzte ostiral honetatik aurrera, Tolosan



Erdi mailako eta goi mailako ziklo bana hasiko dira irailan. HITZA

Itzea Urkizu Tolosa

Ostiral honetan izango dira, Tolosako Paper eskolako bi ziklo berrien ikasturte hasierako aurkezpenak. Oraindik, ordea, papergintzaren eta kimikaren esparruko bi modulo hauetako batean matrikula egin nahi duenak badu aukerarik, Don Boscok Errenterian duen egoitzan.

Pasa den maiatzean, Tolosako Udalak eta Don Boscok erdi mailako eta goi mailako ziklo hauen eskaintzaren berri eman zuten. Hainbat hilabetetan lanean aritu zen Don Bosco zentroa, kimikaren esparruko modulo hauek emateko baimena lortze bidean, eta maiatzean eskuratu zuten, hain zuten.

Baimena, ordea, baldintza batekin eman zioten Don Boscori: gutxienean ikasle kopuru bat bermatu behar zuten bi zikloetan ikasturte berria abiarazteko.

Matrikulazio kampania martxan jarrita, lortu dute gutxienean ikasle kopuru hori gainditzea, eta honenbestez, lanbide heziketan adar berri bat izango da Tolosan, aurrerantzean.

www.fpdonbosco.com web atarian goi mailako eta erdi mailako ziklo hauen inguruko informazio gehiago eskura daiteke, eta baita 943 67 29 00 telefonon nahiz Paper eskolan bertan ere. Izan ere, oraindik zabalik da matrikulazio epea, eta aurrez aurre egin behar da, Don Boscok Errenterian duen

zentroan. Zikloetako bat erdi mailakoa izango da, Kimikagintza hain zuten, eta goi mailako zikloa, berriz Kimikagintza industriala izeneko izango da.

Azpitarratu dutenez, eskualdean zein Gipuzkoan papergintza munduari lotutako enpresen beharrei begira osatu dituzte moduloak, eta bide beretik, ikasleak lan munduan barnatzea da helbururik garrantzitsuenetako bat.

Bi urteko hutsunea betetzera

Tolosan papergintzak zuen indarra eta tradizioagatik sortu zen, 1965. urtean, Paper eskola; besteak beste, industriaren sektorea teknologia berrietara egokitzeko beharra ikusi zuten.

Azken hamarkadetan papera-

ren sektorean izan duen aultzearekin batera, ordea, ikastetxea bera ere gainbehera etorri zen, eta bi urtetan ezin izan dute hezkuntza arautuko ziklorik eskaini.

Orain ordea, hutsune hori berriro bete eta herriko hezkuntza eskaintza osatuko dute zikloek. Aipatzekoa da, gainera, Gipuzkoan ziklo hauek Tolosan bakarrik eskainiko dituztela. Tolosako Udalak balorazio positiboa egin du, eta beren iritziz, «erakunde publikoen eta Don Boscoren arteko lanaren fruitua pozgarria» da oso: «Pozik gaude eskualdean Lanbide Heziketako zikloen eskaintza oparo eta anitza dugulako, eta egungo lan merkatuaren eskaria asetzeko ongi prestatua, gainera».

Martxan dira Tolosa eta Donostia arteko autobusetako aldaketak

Zerbitzu berriaren inguruan erabiltzaileen ekarpenak jaso dituzte udan, aldaketak egin aurretik

I. Urkizu

Pasa den uztailaren 1ean martxan jarri zuten, Tolosatik Donostiarako lotura indartu nahian, autobus zerbitzu berria. Udan era-

biltzaileen ekarpenak jasota, zenbait aldaketa jasan ditu zerbitzuak, eta indarrean dira jada.

Besteak beste, Tolosatik 07:10ean irteten zen autobusa 07:05ean irtengo da orain Antiguoa auzora lehenago irteteko, eta 08:10ean bi autobus irtengo dira. Era berean, ospitaletatik 15:15ean pasatzen zen autobusak denbora egin beharko du aurrerantzean, behar baino lehenago ez pasatzeko.

Bestalde, Donostiako ospitale-

tatik Tolosara etortzeko orain arte 13:00etan eta 19:00etan irteten ziren zerbitzuak 12:30ean eta 18:00etan aterako dira orain; gainera, ospitaletara bidean doazen zerbitzu guztiek geldialdia egingo dute aurrerantzean, Onkologiko parean.

Aldatutako ordutegi osoa ikusiteko nahiz zerbitzuaren inguruko informazio gehiagorako, www.tolosaldeagaratzen.net eta www.tsst.info web atariak bisita daitezke.

Egin HITZaren HARPIDEDUN
Irailaren 1etik urriaren 31ra arte, ETA JASO:

OLASAGASTI
kontserba produktu sorta
www.conservasolasagasti.com

Harpidedun egiten diren guztien artean
SEGORE ETXEBERRI
nekazal turimooan, bi lagunentzako
asteburu basterako egonakida*
ZOZKATUKO DUGU
*Ostiral gauetik, igande goizera PENTSIDO OSOAN.

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza



Hossegorren ateratako ilunabarreko argazkia bidali du Mirari Izagirrek, eta Zumaian ateratakoa, berriz, Ainhoa Kalongek. M. IZAGIRRE/ A. KALONGE

Oporrez oroitzeko argazkiak

Martxan da HITZAK antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketa; hilaren 23a, astelehena, izango da argazkiak bidaltzen azken eguna

Lehen hiru postuak lortzen dituzten argazkiek sariak jasoko dituzte

Erredakzioa

TOLOSALDEKO HITZAK antolatutako duen XVII. Udako Argazki Lehiaketako argazkiak iristen hasiak dira. Lehiaketako lehen hiru postuek saria izango dute. Lehenengoak Bermeoko Lurdeia landetxean bi pertsonentzako asteburu osorako egonaldia irabaziko du, bigarrenak Tolosako Beti-Alai jatetxearen eskutik bi pertsonentzako otordua eta hirugarrenak Larraitzen dagoen Txindokiko Itzala abentura parkerako bi sarrera lortuko ditu.

Irakurle guztiek dute udako oporraldiko argazkiak bidaltzeko aukera, baina bakoitzak argazki bakarra bidali ahal izango du. Irudiak thargazkiak@hitza.info helbidera, edota posta arruntez Tolosako Araba etorbideko 5-atzea helbidera bidali behar dira. Hilaren 23a, astelehena, izango da irudiak bidaltzeko azken eguna. Argazkiarekin batera egilearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta argazkia non ateratu den azaldu behar da, azalpen txiki baten laguntzarekin. HITZAKo epaimahaiak jasotako lan guztiak ikusi eta zortzi aukeratuko ditu, eta HITZAKo egunkarian hilaren 25ean ikusi ahal izango dira finalistak. Horien artean gustukoena harpide-

↓ Baldintzak

- Argazkiak 2013ko udako oporraldikoak izan behar dira, papelean, diapositiban eta formatu digitalean.
- Bidaltzeko aukerak: thargazkiak@hitza.info-ra, edo posta arruntez TOLOSALDEKO HITZA egoitzara (Araba etorbidea, 5-behea, 20.400 Tolosa).
- Argazki digitalek, gutxienez, ezaugarri hauek izan behar dituzte: 20 zentimetroko zabalera eta 300eko bereizmena.
- Jarri behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa, argazkia non eta noiz ateratu den, eta zer ikusten den.
- Jasotako argazkiak artxiboan gordeko ditugu, eta HITZAK behar dituenean argitaratuko ditu.

↓ Sariak

- **Lehena.** Bermeoko Lurdeia landetxean, bi pertsonentzako asteburu osorako egonaldia.
- **Bigarrena.** Tolosako Beti-Alai jatetxean, bi pertsonentzako asteburuko otordua.
- **Hirugarrena.** Larraitzeko Txindokiko Itzala abentura parkerako bi sarrera.



Sopelako hondartzan ateratako argazkia da bodyboard egitera joanda, udako goiz batean. JONE EZKURDIA

dunek bakarrik aukeratu ahal izango dute, eta horretarako thargazkiak@hitza.info helbidean harpidedun kodea, eta gehien gustatu zaien irudiaren zenbakia eman beharko dute urriak 2 baino lehen. 943 65 56 95 telefonora deituta ere bozka eman ahal izango da. Bozka eman duten harpidedun guztien artean, HITZAKo produktuen sorta zozkatuko da. Argazki guztiak tolosaldea.hitza.info webgunean izango dira ikusgai. Argazki irabazleak zein boto emaile aritu den harpidedun saritua urriaren 3an argitaratuko dira.

Mahala
Etenekik
• Haraguz
• Dindu samarrik
• Hestehetarik

Mahala Beotiko | Lastera | Tolosa | T. 943 65 56 95 | www.tolosahaldea.com

2013ko irailaren 3a, asteartea II. (18. urteko gazte ofizialak PAIR 2013) pag. 5/24



Goiatzko jaien barruan herriko dantzariak eginiko dantza saioa, auzoko plazan. HITZA

Atsedeen egunek utzitakoa

Abuztua egunik lasaienak izaten dituen hilabetea da, eta horrela izan da aurtengoa ere, jaiek protagonista izan direlarik

Horiez gain, ordea, izan dira nabarmendu beharreko gertakariak, kirolean bereziki

Iñigo Terradillos

Urteko hilabeterik lasaiena izan ohi da abuztua gurean. Opor egunak dira herritar askorentzat, eta Tolosaldeko at igarotzeko baliatzen dute askok. Gainera, gurea barnealdeko eskualdea izanik, ez da bisitarien kopuru handiagatik nabarmentzen. Ondorioz, gure herriko kaleak ohi baino hutsagoak ageri dira. Hori bai, baliteke aurtengoan hainbeste nabaritu ez izana joera hori, krisiaren ondorioz herritar askok etxean gelditzeko hautua hartu baitute.

Hilabete lasaia izan arren, badira azpimarratu beharreko gertakariak: Jaiek eskualdeko herri ugari alaitu dituzte; saharar haurrek ahaztu ezinezko bi hilabete igaro dituzte; eta Tolosaldeko kirolariak emaitza onak utzi dituzte. Albiste beltz edo ez hain pozgarrien artean, Ibarako jaietako eraso sexista, eta bi heriotza aipatu behar dira.

HERRIKO FESTAK

■ **16 herri jaietan murgildurik.** Tolosaldeko herri gehienek abuztuaren ospatzen dituzte jaiak. Horrela da, Larraul, Berastegi, Ikaztegieta, Albiztur, Balarraín, Orendain, Hernialde, Aduna, Zizurkil, Gaztelu, Amezqueta, Bidania, Goltz eta Ibarren kasuan. Hilabete osoa, beraz, jai giroan igarotzeko aukera paregabekoa izan da. Jaien lekukoa hartzen azkena Berrobi izaten da. Hain zuzen ere, herenegun amaitu zituzten herriko festak berrobitarrek.

UDABERRI HUNGARIAN

■ **Hungariako folklore jaialdian izan dira dantzari tolosarrak.** Udaberri taldea Hungarian barrera ibili da abuztuaren, eta herrialde hartan hainbat emanaldi eskaintzeko aukera izan du. Folklore jaialdiak bost egun iraun



Ibarako jaien barruan, giza proba saioa izan zen Euskal Herria kalean. IT.

zituen arren, Hungariarainoko bidaia baliatuz Europako beste hainbat toki ere bisitatu dituzte. Bidaia Europako beste herrialdeetako kulturak ezagutzeko aukera eman die: «Gutako hainbatentzat guztiz berria izan da beste era bateko dantzak eta kantuak ikustea», adierazi dute. Era berean, ikusleen artean harrera «bikaina» izan dute euskal dantzek, «gainerakoengandik guztiz desberdinak direlako, askoz ikusgarriagoak». Au-

rrera begira, Estatu Batuetara joateko asmoa du Udaberri, Boisen (Idaho) antolatzen duten euskal dantzen jaialdian parte hartzera. «Hara joateko izena eman dugu, baina badakigu oso zaila izango dela aukeratuak izatea», esan dute.

SAHARAREN UDA

■ **22 haur saharar izan dira eskualdean, bi hilabetez.** Tolosaldeko udalek eta Tolosaldea

Sahararekin elkarrekin antolatzen duten Oporrak Bakean ekimenaren barruan, 7 eta 12 urte bitarteko 22 neska-mutil saharar izan dira Tolosaldean uda igarotzen. Ekainaren 25ean ailegatu ziren, eta euren familia hartzaileekin, nahiz aterpetxean bi hilabete ahaztezin igaro ostean iragan abuztuaren 25ean hartu zuten saharar errefuxiatuen kanpalekuetara itzultzeko hegazkina. Askotariko jarduez gozatu ahal izan dute euren egonaldian, eta azkena, abuztuaren 23an Tolosaldeko Zerkausian egin zuten agur jaialdia. 80 lagun inguruk hartu zuten parte herri afarian, eta ondoren saharar musikaz gozatu ahal izan zuten zuzenean. Datorren urtean Tolosaldera itzultzeko ilusioarekin agurtu zituzten euren familia euskaldunak saharar gaztetxoek.

ERASO SEXISTA

■ **Emakumeenganako indarkeria kasua Ibarako jaietan.** Abuztuaren 24ko gauean emakume bat erasotua izan zen Ibarako jaietatik etxerako bidean. Aurpegia estaldurik zuen gizon baten eraso jasan zuen. Antza, emakumea defendatu zenean eta bizilagunak ohartzen hasi zi-



22 hour saharar izan dira Tolosaldean, uda honetan. HITZA



Ibarrako jaietan izandako eraso sexista salatzeako elkarretaratzea egin zuten. HITZA

reanean ihesi joan zen erasotzailerak. Ibarrako Udalak eta jai batzordeak gogor salatu dute erasoak: «Jai gunea, jaiak, emakumeek aske eta lasai bizitzeko lekuak direla eta emakumeek espazio publikoa lasai erabili dezaketela uste dugu, eta horrela izateko lanean jarraitzeko konpromisoa berresten dugu. Eraso hau ez da kasu isolatua, jaietan eta jaietatik ari erasoen berri izaten baitugu ia egunero Euskal Herrian. Matxismoa da erasoaren atzean dagoena, jendarte patriarkala, jendarte kapitalista. Eta indarkeria sexistarekin bukatzeko kapitalismo patriarkalarekin bukatzea beste biderik ez dago; hamaika neurri hartu ditzakegu erasoaren aurka, baina jatorriarekin bukatu arte ez dugu indarkeria sexistarekin bukatuko», adierazi dute.

SUTEA

■ **Villabonako Frigo lantegian.** Abuztuaren 21eko gauean Villabonako Frigo lantegian sortutako suteak kalte material larriak eragin zituen.

KIROLAK

■ **Iker Karrera, maila ezinhobean.** Amezketako lasterkariak Gran Raid des Pyrenees irabazi



Udaberri dantza taldeko kideak Hungarian izan dira abuztuan. HITZA

zuen abuztuaren 23an. Estreinak hartu du parte 160 kilometro luzera duen proban. 24 ordu eta 54 minutu behar izan zituen Karrera helmugara iristeko. Amezketarraren hurrengo erronka Tor Des Geants proba izango da.

■ **Sega apustua beternoaren alde.** Joakin Garmendia anoetarrak irabazi zuen abuztuaren 24an Anoetako ikastola ondoko belardian Irati Astondoaren aurka jokatu zuen sega apustua. Ordu erdia eta gero, Anoetakoak 380,5 belar kilo ebaki zituen, eta segalari bizkaitarrak, berriz, 340,5 kilo moztu zituen. Ikusmin handia piztu zuen apustuak, 700 ikusletik gora bildu zirelarik. Batetik, adin tartegatik, Joakin Garmendiak 68 urte eta Irati Garmendiak 22

baititu, eta bestetik, 46 urte ziren azkeneko aldiz emakume batek apustua jokatu zuela.

■ **Irene Kaminos, hirugarren, mundukoan.** Biketrial txirindulari tolosarrak hirugarren postua lortu zuen Suitzan jokatu zuen Munduko Trialsin Txapelketan, kadete mailan.

■ **Carlos Peñak erronka gainditu du.** Igerilari tolosarrak gaixotasun arraroen alde 24 orduz egin zuen igeri, Nafarroako Allozko urtegian, uztailaren amaieran.

■ **Leaburuko behorra, munduko txapelketan.** Talita Kumi %50 izena duen eta Jon Fernandez de Antona leaburuarrena den behorrek Munduko Enduro Txapelketan laugarren postua lortu zuen uztailaren amaieran, Tarbesen (Frantzia).



Leaburuko behorra laugarren izan da munduko txapelketan. HITZA

Behorra gidatu duena Oriana Ricca uruguaiarra izan zen, 2011n munduko txapelduna. Lorpen horren ostean, President of United Arabians Endurance Cup lasterketara gonbidatuak izan dira, 2014ko otsailaren 14n Abu Dabhira. Lasterketa hori munduko garrantzitsuenak da gaur egun.

HERIOTZAK

■ **Iosu Otaegi.** Argazkilari tolosarra hil zen abuztuaren 26an, 51 urterekin. Klisk argazki dendako argazkilaria, *Diario Vasco* egunkariako Tolosako argazkilaria ere izan zen urte askoan. Horrez gain, Tolosako hainbat ekimenetako argazkilaria ere bazen, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatutakoena, kasu. Tolo-

SALDEKO HITZAK ere maiz argitaratu izan ditu Otaegik eginiko argazkiak. Irudi horien premia izan duenean argazkilaria irengana jo, eta honek prestutasun osoa izan du beti horiek uzteko.

■ **Maria Luisa Agirre.** Abuztuaren 18an Maria Luisa Agirre medikua hil zen, 94 urterekin. Garrantzi handiko pertsonaia izan da Tolosan, belaunaldi askoren medikua izan baitzen. Medikua eta emakumea, horiek biak izatea gauza makala ez zen garaian. Leaburun bizi zen azken urteetan. Bertako Osasun eta Kultur zentroak bere izena daralma, eta baita Tolosako Alde Zaharreko kale batek ere, haren omenez. 90 urte zituela Gipuzkoako Medikuen elkargoaren eskutik omenaldia ere jaso zuen.

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

IOSU OTAEGI LASA

*Eskerrik asko
urte guzti hauetan
emandako laguntzagatik*

Tolosaldeko Hitzako lan taldea

TOLOSALDEKO **hitza**



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
Faxa: 943 65 00 18
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa.
Kudeatzailea: Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona-aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Hernioko erromeria hasi da

Lehen igandea pasata, beste lau geratzen dira Herniotik buelta egin eta Zelatungo erromeriaz gozatzeko


Eneritz Maiz

Iraila hastearrekin batera, eta ohi-turari jarraituz hasi da Hernioko erromeria. Aurtan, gainera, bost erromeria egun izango dira. Hernio mendiko gailurrera igo eta gero, Zelatunen biltzen dira mendizaleak bertako festa giroaz gozatzeko. Bertan, hamaiketako ederra egiteko aukera izan ohi da, eta postuekin batera, trikiti doinuek ere ez dute hutsik egiten.

San Joan Txiki eguzek ematen zaio hasiera, eta ondorengo igandeetan izaten da erromeria Zelatunen. Gehienek Hernio tontorretik egiten dute itzulia, eta asko eta asko dira tontorrerako bidean dauden burdinazko uztaiek gorpuzta zeharkatzen dutenak. Ohiturak dioenez, uztaiek hezurretako gaixotasunak sendatzen dituzte. Hernioko erromeria eza-gutzen ez dutenek badute horretarako aukera. Azken igandea izan ohi da jendetsuena.



Jatekoa eta edatekoa izaten da Zelatunen, eta ohikoa da Zelatunera igo eta trikiti doinuekin dantzan egitea. HITZA



Ohiturak dioenez, burdinazko uztaietatik pasa behar da gorpuzta. Jende askok egiten du tontorrerako bidea. HITZA

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Tolosaldea Garatzeneko enplegu zentroak langabetuentzako hiru ikastaro antolatatu ditu: Ikastaroei buruzko informazioa aurkitzen ikasi; lana bilatzeko teknikak eta Curriculum Vitaeak bidaltzeko posta elektronikoa erabiltzen ikastea izango dira. Lehera irailaren 10 eta 12an izango da; bigarrena hilaren 17 eta 19an, eta azkena, hilaren 24 eta 26an. Izena emateko 943 65 45 01 telefono zenbakira deituz, edo lan@tolosaldea.net helbide elektronikora idatzi daiteke.

■ **Leaburu.** Ibarrik Leabururainoko errepidea moztuta egongo da, gaur, 08:00etatik 20:00etara.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, L. Amaroiz Auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan Oskar, Karlos eta Joxe Mari!

Oskar Zelarain, Karlos Besance eta Joxe Mari Olarra (Amasa-Villabona).

Abuztuaren 2an, 17an eta 27an urteak bete zituzten. Animo! Eutsi gogor! Maite zaituztegu!

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info